

2.- GIZONA /EMAKUMEA

- ◆ **"agure buruzuri oillanda zalie, nok erakutsi deitsu gurera bidie!"**

Agure buruzuri oilanda zalea, nork erakutsi deitsu gurera bidea

- ◆ **"akerran buztenpien legorpe gitxi"**

Akerraren buztenpean, lehorpe gitxi

- ◆ **"ezkondu ta odolostak, beti berotan"**

Ezkondu eta odolostak, beti berotan

- ◆ **"ezkontza ta buzkentza, berorik"**

Ezkontza eta buzkentza, berorik

- ◆ **"gixon guztidzek burue baltz, zein dan ohea igartea gatx"**

Gizon guztiak burua baltz, zein dan hobia igartea gatx



- ◆ **"igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa"**

Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa

- ◆ **"len arro zana, emaztien esanetan otzana"**

Lehen harro zana, emaztearen esanetan otzana

- ◆ **"zelako gonie, alako prakak ez dira falta"**

Zelako gonea, halako prakak ez dira falta

3.- ANTZERAKOTASUNA

- ◆ **"arrantza gure astoak, erantzun auzokoak"**

Arrantza gure astoak, erantzun auzokoak

- ◆ **"arranuek lumek bier, txepetxak be bai"**

Arranoak lumak behar, txepetxak be bai

- ◆ **"astoa kortan eta mandoa etxien "**

Astoa kortan eta mandoa etxean


◆ **"astoak mandoari, belarriandi" /"astoak muloari:
kendu adi ortik, belarri"**

*Astoak mandoari, "belarri-handi" / Astoak muloari:
kendu hadi hortik, "belarri"*



◆ **"a zelako parie, karakola ta barie"**

Ha zelako pareta, karakola eta bareta



◆ **"emen datoz iru neskatilla: zuringo, gorringo ta maripantorrilla"**

Hemen datoz hiru neskatila: zuringo, gorringo eta maripantorrilla

◆ **"kazuela bateko sardiñak, danak bardiñak"**

Kazuela bateko sardinak, danak bardinak

◆ **"nok esan leidxo astoari arre" / "nok astoari arre"**

Nork esan leio astoari arre / Nork astoari arre

◆ **"uno con otro, kattalin potro"**

Uno con otro, katalin potro

4.- ABERASTASUNA /TXIROTASUNA

◆ **"aberatsak, popan atsa"**

Aberatsak popan hatsa

◆ **"aberatsak, popan atsa; inpernuko lebatza"**

Aberatsak popan hatsa; inpernuko lebatza

◆ **"beti bierrien ta beti kaka morralien"**

Beti beharrea eta beti kaka-morralean

◆ **"dekonak badeko, ta eztekonak baleko"**

Daukanak badauka, eta ez daukanak baleuka

◆ **"bier utse, kaka utse"**

Behar hutsa, kaka hutsa

◆ **"dagoanean bon bon, ta eztagoanean egon"**

Dagoanean bon bon, eta ez dagoanean egon



"dekonak badeko, ta eztekonak baleko"
Daukanak badauka, eta ez daukanak baleuka

◆ **"dagoanean bon bon, ta eztagoanean or konpon"**

Dagoanean bon bon, eta ez dagoanean hor konpon

◆ **"dauenien, bon ta eztauenien, egon"**


Dagoanean bon, eta ez dagoanean egon

◆ **"esnerik ez bada katilluan, zeozer txarra ikuilluan"**

Esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ikuiluan"

◆ **"ezebez: begireko ona, triparako ez"**

Ezer be ez: begirako ona, triperako ez



"esnerik ez bada katilluan, zeozer txarra ikuilluan"
Esnerik ez bada katiluan, zeozer txarra ikuiluan"

◆ **"ezkur urte, edur urte"**

Ezkur urte, edur urte

◆ **"gaurko ogidxe, bidxerko gosie"**

Gaurko ogia, biharko gosea

◆ **"goidxen zerue ta beien lurre"**

Goian zerua eta behean lurra

◆ **"joanak asko, etorridxek gitxi"**

Joanak asko, etorriak gitxi

◆ **"saldue, galdue"**

Saldua, galdua

◆ **"pazko euritsu, urte ogitsu"**

Pazko euritsu, urte ogitsu

◆ **"urrun, urrun, urune urrun" / "martimonteko txarridxek run run; ure urrien da urune urrun"**

Urrun, urrun, uruna urrun / Martimonteko txarriak run run; ura urrean eta uruna urrun

5.-DIRUA

◆ **"diru zeie, poltsiko meie"**

Diru zehea, poltsiko mehea

◆ **"dirue, irabaztie baño gastetie errezago"**

Dirua, irabaztea baino gastetea errezago

◆ **"ezebez, begireko ona, partikerarako ez"**

Ezer be ez, begireko ona, partikerarako ez

◆ **"kontuak kontu ta senarra boltseru"**

Kontuak kontu eta senarra boltseru

◆ **"emengo itturridxe akabe da"**

Hemengo iturria akabau da

6.- ITXURAKERIA

◆ **"arotzan etxien, otzara aurkidxe"**

Arotzaren etxean, otzarea aurkia

◆ **"balizko erroteiek urunik ez"**

Balizko erroteak urunik ez

◆ **"errementaridxen etxien, zotza burduntzi"**

Errementariaren etxean, zotza burduntzi



"emengo itturridxe akabe da"
Hemengo iturria akabau da

"kanpoko larrosie, etxeko arantzie"
Kanpoko larrosea, etxeko arantzea



◆ **"etxien otso ta auzoan uso" / "kalien uso ta etxien otso" / "kanpoan uso, etxien otso"**

*Etxean otso eta auzoan uso /
Kalean uso eta etxean otso
/ Kanpoan uso, etxean otso*

◆ **"gizona, alegre kalien, etxien gerrie"**

*Gizona, alegre kalean,
etxean gerrea*

◆ **"kanpo eder etxien gerrie / kanpo eder etxe kakatsu"**

*Kanpoeder etxean gerra /
Kanpoeder etxe kakatsu*

◆ **"jaun kanpo-eder, etxekalte"**

Jaun kanpoeder, etxe kalte

◆ **"kanpoko larrosie, etxeko arantzie"**

*Kanpoko larrosea, etxeko
arantzea*

◆ **"lehen harro zana, emaztien esanetan otzana"**

*Lehen harro zana, emaztearen
esanetan, otzana*

7.- EGUTEGIA

◆ **"ai ene!, oi ene!, ogeta laugarrena san bartolome"**

Ai ene!, oi ene!, hogeta laugarrena San Bartolome

◆ **"andra mari martikotik amar egunera kukuek ez badeu jo, errobatibek eiñ"**


*Andra Mari martikotik hamar egunera kukuak ez badau jo,
errobatibak egin*

◆ **"natibitate, asebeta"**

Natibidade, asebeta

◆ **"san andres, txarriдек askan trabes"**

San Andres, txarriak askan trabes



**"san andres,
txarriдек
askan trabes"**
*San Andres, txarriak
askan trabes*